

HITZEK ERAGINDAKO ONDOEZA

HAINBAT TERMINOREN DEBEKU, BERROGEIALDI edo KONTSUMO ARDURATSURAKO PROPOSAMENAK

(Zerrenda dinamikoa)

Kepa Korta

Hasieran erdi txantxetan, baina azken urteetan gero eta serioago, aipatu ohi dut Hizkuntzaren Filosofiako euskarazko eskoletan hitz, termino edo adierazpen batzuk *debekatu* beharra, filosofiaz hitz egiten eta, batez ere, idazten dugunean; edo, gutxienez, Hizkuntzaren Filosofiako klasean; edo Hizkuntzaren Filosofiako *nire* klaseetan, sikiera.

Debekatzea gogorregia izan daiteke, filosofia egiten ari garela, adierazpen-askatasuna indarrean dagoen (edo dagoela dirudien) inguru batean bizi garelako, balio demokratikoak bultzatu nahi ditugulako, edo nik zer dakit ba zergatik. Baina benetan ari naiz: hainbat termino debekatzeko gogoia ematen du ikasleen ahotan edo testuetan entzun edo irakurrita behin eta berriz, urtea joan eta urtea etorri, errukirik gabe, tai gabe. Debekuak ezartzeko gaitasun edo autoritatea banu, egingo nuke. Baina ez daukat.

Hortaz, norberak bere buruari ezartzeko debeku-proposamen gisa dakarzkid beheko hitz, termino edo adierazpenak. Geure idiolektotatik ezabatu egin beharko genituzke, kalte egiten diotelako filosofiari. Kalte handia. Utz ditzagun alde batera, beraz.

Nik legez kanpo utzi ezin ditudanez, eta, nik uste, Espainiako auzitegiek ere egingo ez dutenez, nork bere buruari ezarri beharko dio debekua (ez pentsa, garai bateko —garai bateko? Ez al dago indarrean oraindik?— Espainiako alderdien legea erabilia auzitegiek isiltasuna ere zigor zezaketen — dezakete—, eta alderdiak eta hautagaiak legez kanpo utzi, termino jakin batzuk erabili ezean. Adierazpen batzuk debekatu baino, adierazpen jakin batzuk behartu nahi zituzten, egia esateko).

Kontua da hizkuntzaren filosofian, bereziki, eta filosofian, oro har, auziak, galderak eta problemak argi, zorrotz eta zehatz planteatzeko, hasteko, eta erantzunak eta soluzioak proposatzeko, gero, ezinbestekoa dela hizkuntza erabiltzea; eta ez dela beti erraza izaten, hizkuntza zuzen, zintzo eta zehatz erabilia ere, behar bezainbesteko argitasuna erdieste. Pentsa zer eragiten duen, egoera horretan, hizkuntzaren erabilera traketsak.

Askotarikoak izaten dira hizkuntzari egiten dizkiogun aberiak eta horien kausak. Eta hizkuntzaren bidez pentsamenduari egiten dizkiogun kalteak. Nonahi aurki daitezke jardun filosofikoan bederik saihestu egin beharko genituzkeen adierazpenen kausak: inguruko beste hizkuntzen kalkoetan, komunikabide askoren hizkuntza-arduragabekeria, ikastolan, eskolan edo institutuan edo are unibertsitatean izan

d(it)ugun irakasle(et)an eta bere(n) testuetan. Kontua ez da errudunak identifikatzea, gu ere errudun ez bihurtzea baizik.

Termino batzuk debekatzeko modukoak dira, beraz. Beste batzuk ez dira horren txarrak. Ez dute behin betiko kalterik eragiten, neurrian erabiltzen badira. Hitz batzuk birusak (*memeak*) balira bezala hedatzen dira. Lehen aldiz topatzean polita iruditzen zaizu, baina nobela horretan, poema hartan, iritzi-artikulu horretan topatzean *gastatu* egin zaizu eta, handik pixka batera, baliogabetu. (Azkenaldian, filosofiatik at, “zaugarri” hitzarekin gertatu zait hori. Eta ez dakit erabili duten guztiek ba ote duten bere bi kontrako esanahien berri: batetik, ahula, erasotzen erraza dena deskriba dezake, eta, bestetik, zauria egiten duena, min egiten duena). Hitz batzuen *kontsumo arduratsua* egin behar da, badaezpada ere.

Azkenik, beste hitz batzuk ez dira kaltegarriak, berez; baina erabiliaren erabiliaz kutsatuta daude, eta komeni da berrogeialdian jarri, ondo aztertu eta, behar izanez gero, esterilizatzea, berriz ere lasai erabili baino lehen. “Gezur” hitza da, beharrezko azterketa egin arte, hizkuntzaren filosofiako lehen asteetan isolatu eta bakean utzi beharreko hitz horietako bat.

Osasun kontua da. Osasun-larrialdiko egoeran hartu beharreko hil ala biziko neurriak dira hauek; modu batera edo bestera hitz batzuek ondoez hilgarria eragin baitiezaioke gehiegitan jasatea egokitzen zaionari.

Hona proposamena. Eta, lasai; eskerrak emateko, ez daukazue zertan balkoietara txalo egitera atera. Nahikoa da komentario txiki bat e-postaz. Edo batere ez.

ZERRENDA
2020.04.10ean eguneratua
(Azken bertsioa jaso nahi duenak hemen aurki dezake:
www.kepakorta.com)

DEBEKUAK
Ahal dela, ez erabili

Egiazkotasuna

Zergatik esan “egiazkotasuna”, “egia” esan nahi denean?

Euskaraz substantiboa “egia” da, eta adjektiboa “egiazko”. Jakina, “-tasun” atzikia erabiliz erraz sortzen du euskarak izena adjektibotik: “faltsu”tik “faltsutasuna”. Baina “egiazko” adjektiboari ez zaio zertan atzikia gehitu izena sortzeko, kasu honetan izenetik (“egia”tik) sortu baita adjektiboa.

“Egiazkotasuna” erabil daiteke, noski, baina ez “egia”ren ordezeko. Lagungarri izan daiteke, filosofiarako behintzat, baliokidetasun hauek buruan ondo gordetzea:

Egia = *truth*

Egiazko = *true*

Egiazkotasun = *veridicality; authenticity*

Egiaztatu = *verify*

Faltsu = *false*

Faltsutasun = *falsity*

Barnebildu

Azken urteetan hasi naiz hau irakurtzen ikasleen lanetan. Ez al zaizue benetan itsusi egiten? *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ez da ageri. *Orotarikoan* marratxoarekin (“barne-bildu”) dator, baina honako esanahi honekin: *Recogido, volcado a la vida interior*.

Baina nire ikasleek ez dute esanahi horrekin erabiltzen. Nik uste dut beren irakasleengandik edo auskalo zer filosofia-testutik jaso dutela, eta haiek gatzelaniazko *incluir* itzultzeko asmatu zutela (zoritxarrez, euskarazko filosofia-testu asko gatzelaniaz pentsatutakoen edo idatzitakoen itzulpenak dira, bai).

Topatu ditudan kasuen % 99an txukunagoa da “bildu” soila; *biltzaileak* ez baitauka *barne* eta *kanpo* bereizirik. Kasu bakarren batean “barne hartu” jatorra erabiltzea izan daiteke zehatzagoa; baina inoiz ez dut “barnebildu” zatar horren premiarik ikusi.

Iritzi pertsonala

Honako hau nire iritzi pertsonala da —tira, ez nirea soilik—. Filosofia graduko 2. mailara iritsita, ikasleek ez dakite filosofia-saiakera bat idazten. Ez saiakera on bat. Ez dakite saiakera hala moduzko bat idazten, baina ezta saiakera bat idazten ere.

(Institutuko edo unibertsitateko irakasle askok ere ez, esango nuke; bihoakie proposamen hau haiei ere, adeitasunez).

Ikasleek egin ohi dutena da testuren baten edo batzuen laburpena (egileari edo egileei buruzko ohar irrelebante batzuek lagundua, agian), eta, gero, *iritzi pertsonala* adierazi, titulu gisa, horixe, *iritzi pertsonala* daraman atal batean. Hor, normalean, egilearen edo egileen obra osoaren (ez komentatu duten artikulua edo liburu horren) juizio sumarisimoa egiten dute, honelako argudio sendo eta objektiboekin: nik bat egiten dut Xekin; X ez da nire gustukoa, zurrunezia delako; Xren ikuspegi logikoak ahaztu egiten du hizkuntzaren malgutasuna... eta kito. Gaizki egindako erreferentzien zerrenda bat, akaso, eta kito. Ez tesirik, ez tesiaren aurkezpenik, ez argudiorik, ez kontrako eta aldeko arrazoien kontsideraziorik, ez ezer. Laburpena eta iritzi pertsonala.

Ahaztu laburpenak. Ahaztu, batez ere, iritzi pertsonalak. Zure iritzi pertsonala ez zaio inori idatziz interesatzen. Ezta zure gustuak edo hobespenak ere. Zure tesiak eta zure argudioak interesatzen zaizkigu. Eta, laburpenetarako, badauzkagu testuliburuak.

Gottlob, Bertie, Ludwig, Elizabeth, Deirdre soilik ez (Joana Garmendiaren ekarpena)

[Niri ez didate sekula horrelakorik egin, nik uste. Baina Joana Garmendiari, bai (eskerrik asko, Joana)]. Filosofia-saiakeretan eta, oro har, testu akademikoetan, autoreei abizenez egiten zaie erreferentzia, beti: Frege, Russell, Wittgenstein, Anscombe, Wilson... Tarteka, akaso, izen-abizenez (autorea aipatzen den lehenengo aldiari, inori gustatzen zaio izena ere zein duen esatea. Konforme). Baina inoiz ez izen hutsez. Ludwig ez da zure laguna, dei iezaiozu “Wittgenstein” [azken hau Ekain irakaslearen oharra da].

Hau esan behar izatea ere! Niri bezala, ezinezkoa dela irudituko zaizue. Ba ez. Ikasleen testuetan, behin baino gehiagotan ikusten omen dituzte autoreak izenez erreferituak hainbat irakaslek. Ez edozein autore, itxuraz: gehienetan, ikasleari “hurbileko” zaizkionak (benetan ezagutzen dituelako, edo –komunikabideetan agertu ohi direnez— denok ezagutzen ditugula iruditzen zaiolako). Eta, bereziki, emakumeekin egiten omen da hori maizena: joera nabarmena dago emakume diren autoreei izenez deitzeko, ez hala gizonezkoiei. Gogora datorkit bertso-txapelketetan nola aurkeztu ohi zizkiguten Elortza, Iturriaga, Lizaso, Egaña... eta Maialen edo Onintza. Ez, faborez!

BERROGEIALDIA

Ez erabili bolada batean, zehazki zer esan nahi duten argitu arte

Gezurra

Hitz honen erabilerak ez du, agian, bestelako azalpenik behar, filosofiako irakasle eta ikasleak (eta logikakoak, eta zuzenbidekoak, eta politikakoak, eta teologiakoak,... eta tira, egongo ahal da salbuespenetan salbuespenen bat!) filosofia (eta logika, eta zuzenbidea, eta bete zuek falta direnak) egiten ari direnean salbu. Baina, normalean, filosofiako ikasleek “faltsua” esan nahi dute “gezurra” esaten dutenean; eta hori gaizki dago; oso gaizki. Gutxi gorabehera eta ahalik eta laburren esateko, alde batetik daukagu:

Faltsu: baierako perpausak, esaldiak, proposizioak edo usteak izan ditzakeen bi egibaldietako bat; egiazkoa ez dena (ikus debekatutako “egiazkotasuna”ri buruz esandakoa).

Eta, bestetik, daukagu:

Gezur: norbaitek, faltsua dela uste duen zerbait esanez, norbaiti zerbait faltsua ustearazteko egiten duena.

Gezur txikiak, zuriak eta beste salbuespen batzuk alde batera utzita, normalean moralki gaitzesgarria den ekintza da gezurra esatea. Faltsua den zerbait esatea ez da automatikoki gezurra esatea. Ahalik eta zintzoenak izanda ere, egunero esaten ditugu faltsuak diren gauzak, oker gaudelako, iturri txarrak darabiltzagulako, edo zientzia eta filosofia gutxi dakigulako, adibidez. Baina horrek ez gaitu gezurri patologiko egiten.

Kontu hauek nahiko argi eduki arte, komeni da “gezur” hitza berrogeialdian mantentzea filosofia (eta logika, eta zuzenbidea, eta politika, eta teologia...) egiten ari zaretenean.

Bere baitan

Esango nuke filosofian adierazpen honek ez daukala toki handirik, ez bada Hegoaldean gaztelaniaz “en sí” eta “para sí” sonatuak itzultzeko. Hori erabilera oso zehatza da, eta egokia, seguru asko. Harrigarriena da adierazpen *multi-erabilera* gisa daukan arrakasta ikasleen artean. Eta, normalean, ez dakigu zehazki zer esan nahi duten, “-(e)n” edo “-(r)engan” soil batekin adieraz dezaketenaz harago. Aholkua: gorde hitza metafisika transzendentala egitea tokatzen denerako, eta, bestela, euskaraz zehazki zer esan nahi duen argi izan arte, mantendu berrogeialdian.

Kontestu/testuingurua

Hitz hau, bere bi aldaeretan, txikle-hitza da eguneroko diskurtso publikoan; diskurtso politikoan, batez ere. Politikari batek astakeriaren bat bota eta kargu hartzen zaionean, beti dauka aitzakia bera: *kontestutik atera* dizkiote hitzak. Normalean politikariak ez dauka arrazoi; baina nola jakin, “kontestu” horrek zer esan nahi duen ez

badakigu? Filosofian, eta hizkuntzaren filosofian ere bai, hainbat adiera dauzka hitz horrek. Esaldi jakin baten aurretik eta atzetik datozen esaldi batzuei egin diezaieke erreferentzia —*kotestu*, n-rik gabe, esaten zaio batzuetan ideia honi—; edo esaldia egin zeneko inguruari edo inguruko zenbait faktoreri zehazki —nork, nori, non, noiz eta zein mundu posibleri (baina, hobe hau ere berrogeialdian uzten baduzue Kripke irakurri arte); *kontestu estua* esaten diote batzuek honi—; edo esalearen eta/entzulearen uste, asmo eta bestelako gogo-egoera batzuekin batera, elkarrizketaren gai eta helburuei, eta komunikazioari eragiten dioten bestelako faktore estralinguistiko batzuei egin diezaieke erreferentzia —*kontestu zabala* esaten zaio honi, ez harritu—. Eta hauek ez dira hor zehar topa daitezkeen “kontestu” edo “testuinguru” hitzen erabilera guztiak. Erabilera horietako zehazki zein egiten den oso argi ez dagoen kasuetan salbu, jarri hitz hau ere bolada baterako beratzen.

Argi (eta garbi) dago

“Dudarik ez dago” edo “argi dago” esaten denean, seinale izaten da horrekin batera datorrena ez dagoela oso argi. Igual egiazki ilun samar ere badago, baina, kasurik onenean, badauka, gutxienez, hainbat zalantza sortzeko gaitasuna. Askotan aditzera ematen duena da, ez begien bistakoa dela esango denaren egia, ezpada idazleak ez diola behar beste gogoetarik eskaini, eta ez diola antzeman, egia izanda ere, argudioen premian dagoela. Hobe, beraz, adierazpide hauek ere kontua argi eta garbi dagoen kasuetarako uztea; argi (eta garbi) dago-eta urriak direla horiek filosofian.

... aurretik, komeni da/beharrezkoa da ... laburtzea

Garrantzitsua da saiakera baten atalen arteko trantsizioak egitea, baita paragrafoen artekoak ere, haren egitura kontzeptuala esplizitu egiteko. Saiakeraren mamiari heldu “aurretik komeni da/beharrezkoa da...” irakurtzean, ordea, alarma guztiak pizten zaizkigu askori. Ondotik datorrena ez da beharrezkoa ezta komenigarria ere izaten, eta ehuneko laurogeita hamarretan erabat tokiz kanpo dagoen laburpen bat da. Laburpen ezinezko bat, gainera; 30 bat orriko bizpahiru testutan azaldutako bizpahiru azalpen konplikatu bizpahiru orri eskasetan jaso nahi duena. Oso zaila da, ezinezkoa ez bada. Are okerragoa da kontua, gero, laburpenaren ondotik datorrena *iritzi pertsonala* bada (ikus goiko debekua).

KONTSUMO ARDURATSUA Erabiltzekotan, tamainan erabili, betiere

Autorea, filosofoa

(eta horien beste aldaerak: **gure filosofoa**, **autore ingelesa**, esate baterako)

Joera hau kirol-kazetariei atzeman nien aspaldi. Baten batek esan bide zien ez zela dotorea izen propioak errepikatzen ibiltzea, eta izena behin betiko ahaztu eta “Leitzako aurrelaria”, “Aspeko atzelaria”, “txapeldun aramarra” eta nik zer dakit zein deskripziotara jotzen zuten, ikus-entzuleok kirolarien *curriculum* osoa buruz bageneki bezala.

Ikasle batzuek antzeko joera erakusten dute: Frege, Russell edo Wittgenstein bi aldiz aipatu ordez, izenordain anaforikoak gutxietsiz, “filosofoa” edo “gure filosofoa” darabiltenean, munduan filosofo bakarra edo *gurea* den bakarra balego bezala, eta, okerrena dena, nori buruz ari diren zantzurik batere eman gabe. Beste batzuetan, “filosofo ingelesa” esaten diote, berez Galesen jaio zenari; edo “amerikarra”, ingelesa denari; edo “alemana” austriarrari. Ez naiz ni izango esango duena “gure filosofoa” bezalako esamoldeak erabiltzen dituztenek zigor kapitala merezi dutenik, baina bai, hala da, irakasle batzuen ustez (eskerrik asko, berriz, Ekain Garmendia). Igual gora pasa beharko genuke, debekuen sailera.

Aholku bat: zuen lehen filosofia-saiakeretan sakrifikatu estiloa, argitasunaren mesedetan. Gainera, Xri buruzko testu batean, ez da ezer pasatzen “Xk dio”, “Xren arabera”, edo “Xren teoria” bakoitza bi, hiru edo lau aldiz erabilia ere. Eta, estiloz behar bezain jaso iruditzen ez bazaizue ere, ez da izango “gure filosofoa” bezain *kursia*.

Oharra (Joana Garmendiaren ekarpena): aholku hau berdin dagokie gainerako hitz eta terminoei ere. Fikzioari buruzko saiakera bat idazten ari bazarete, zuen testuan mila aldiz agertuko dira “fikzio”, “fikziozko”, “fikzionalitate”... hitzak. Ez da ezer pasatzen. Ez saiatu, hitza ez errepikatzeagatik, sinonimoak edo antzekoak erabiltzen. Seguru asko ez duzue aurkituko sinonimo egokirik eta, aurkitzekotan, horrek irakurlea nahastu besterik ez du egingo. Ez zarete poesia egiten ari, ez izan beldurrik hitzak errepikatzeari.

Eman

Covid-19 garaiotan ezin dira musuak eman, baina nolanahi ere, musuak eman, ematen dira. Gogoan izan, dena den, musu emateak musua bera, musuaren jasotzailea eta musu emailea eskatzen dituela (zer-nori-nork), gertatuko bada. Gertakariekin, ordea, ez dago horrelakorik. Bigarren mundu gerra, covid-19aren pandemia, edo zientzia-iraultzak, ordea, ez dira ematen; *gertatu* egiten dira, edo jazo, edo hasi, edo bukatu, edo bultzatu, gelditu, saihestu... madarikatu, nahi baduzue; baina *eman*, ez *dira ematen*. Ez eman egurrik “eman” aditz zintzoari. Emaiozue bake pittin bat.

Erreferentzia egitea (Ekain Garmendiaren ekarpena)

Fregeri diogun miresmenak galduko gaitu akaso, baina askotan aurkitu dut “erreferentzia egitea” modu oso ilunean (eta ez-teknikoan) erabilia. Irakurri dut, adibidez, Russellek lau problemari egiten diela erreferentzia deskripzio definituen teoriarik, Kripkeren tesi batek egia mota desberdinen arteko bereizketari egiten diola erreferentzia, edota Quineren artikulua analitiko/sintetiko bereizketari egiten diola erreferentzia, edota Perryren lanak Fregerenari egiten diola erreferentzia. Gaztelaniako esamolde baldar baten kalko okerrak direla esango nuke.

Horrelako esamoldeak erabiltzen dira, iruditzen zait, autore, lan, gai, tesi eta bestelakoak euren artean erlazionatzeko, erlazio hori zein den oso argi ez dagoenean, agian erlazio hori pixka bat iluntzeko ere, ikasleak gehiegi esan nahi ez duenean (badaezpada ere, hanka sartuko ote duen beldurrez). Horrelakoetan “erreferentzia egin” esamoldeak ez dauka zentzurik. Galdeiozu zeure buruari zer den zehazki esan nahi duzuna, zein den aipatu nahi duzun lotura zehatza. Hori zehazki azaltzeko gai bazara, horrelaxe idatzi, bestela, agian badago oraindik oso ondo ulertu ez duzun zerbaite.

Numeralik ez zenbatzaile gisa (Ekain Garmendiaren ekarpena)

Ikasle askok egiten du: “Fregek 2 esanahi mota bereizten ditu”, “Russellek 4 puzzle aipatzen ditu”, “Badaude gutxienez hori esaten duten 3 filosofo”. Ez erabili numeralak zenbatzaile moduan, ez izan alferra eta idatzi hizkiz: “bi esanahi”, “lau puzzle” eta “hiru filosofo”. Ez da hainbeste kostatzen hizki bakoitza idaztea. Beno, agian bai zenbaki handiei buruz ari bagara, ez dakit bada, “Gure filosofoak 4281 kontzeptu teoriko azaltzen ditu liburuan” esan nahi baduzu, adibidez (baina, zure filosofoak lau mila berrehun eta laurogeita bat kontzeptu teoriko azaltzen baditu bere liburuan, zure filosofoa Heidegger da, eta numeralak dira zure arazo txikiak). Ez gaizki ulertu, mesedez: Frege 1848an jaio zela esateko ez idatzi “mila zortziehun eta berrogeita zortzi”, baina gogoratu, historia-saiakera idazten ari ez bazarete behintzat, inor gutxiri axola zaigula noiz eta non jaio zen eta noren semea zen [azken ohar hau nirea da. Ez da ezer asko, Ekain].

Esango du

Geroaldiaren erabilera honek badu izen tekniko bat, oraintxe bertan burura ez datorkidana. Filosofoen baten esanen berri ematen ari garela “Xk dio”ren edo “Xk esaten du”ren ordez, “Xk esango du” behin eta berriz irakurtzea kaltegarria da, ez bada tokatzen den aldi horretantxe topatzen. Hilda dauden filosofoez ari gara normalean — nekez esango dute ezer, beraz —, baina, bizirik daudenean ere, honezkero esanak (idatziak) dauzkatenez ari gara. Orainaldia ere pasatutako orain batez ari da, baina egin proba: erabili betiko orainaldi jator hori eta egiaztatu geroaldi iruzurti hori baino argiagoa eta dotoreagoa dela. Hori bai: iragana behar duenean, iragana erabili. Aristoteles ez da jaiotzen Estagiran; *jaio egin zen* han. Gaztelaniak onartzen omen du presente historikoa; euskarak, ez.

Nolakotasuna

Euskaltzaindiaren hiztegiak dio:

Nolakotasun

iz. Zerbait edo norbait den bezalako ia izatea dakarren ezaugarri multzoa. *Nolakotasuna edo modua adierazten duten hitzak. Landareen eta animalien oinarritzko nolakotasuna, hazteko eta ugaltzeko ahalmenean datzana.*

Sarrera horretara, beste honetatik irits daiteke:

kualitate iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *kualitate*-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. [nolakotasun](#)].

Euskaltzaindiak azken hitz honek euskara idatzian izan duen erabilera argitzen ez didan bitartean, nik kontrako gomendioa egingo diot filosofiako nire ikasleari. Alegia, ez erabili “nolakotasun” kualitate esan nahi duzunean. Edo, gutxienez, erabil ezazu horixe esan nahi duzunean soilik. Nire arrazoiak Euskaltzaindiaren antzekoak dira. *Nire ikasleen* euskara idatzian izan duen erabilera kontuan hartuta, ez dut beste biderik ikusten. Ikusi, bestela, berriki topatutako erabilera hauek:

- Deskripzio definituen nolakotasuna
- Hizkuntza baten nolakotasunak
- Norbaiti edo zerbaiti nolakotasun bat baieztu
- Nolakotasun horrek arazoak sor ditzake

Batzuetan, “propietate”ren ordeztzatela dirudi; beste batzuetan, “ezaugarri”ren ordeztzatela; beste batzuetan ez dakit. Aristotelesen edo Kanten kategoriaz itzultzeko ere ez dakit ez nukeen hobetsiko “kualitate”. Nolanahi ere, eta filosofiaren historiagileek kontrako argudio sendorik eskaintzen didaten arte, nolakotasunaren kontsumo arduratsua gomendatuko dut.